

Erf.: UEMA laboral kutxa kutxabank udala hitzarmena  
Tx. zk.: 16/

Karmele Muñoa Arrigain andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

589. Zenbakidun Alkatetza Dekretua berrestea: UEMA-gaz, Laboral Kutxa-gaz eta Kutxabank-egaz hitzarmena sinatzea.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Bakarra: 589. Zenbakidun Alkatetza Dekretuz UEMA-gaz, Laboral Kutxa-gaz eta Kutxabank-egaz hitzarmena sinatzea onartu zan Osoko Bilkureak erabagia berrestearen kalte barik.

#### **b) Oinarri juridikoak**

Lehenengoa: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak, bere 7. Artikuluan honakoa dino: "1. Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskeraren normalizazioa planifikatzeko eskumena. Eskumen hori egikaritu ahal izateko, udal bakoitzak beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu eta euskeraren erabilera normalizatzeko beharrezkoa diren planak onetsi eta garatuko ditu, kontuan izanik instituzio kumenetatik eta indarrean dagoen legeriatik euskararen erabilerari dagokionez eratorritako planifikazio eta erregulazio-irizpideak.

2. Era berean, udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste persona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatzeko aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunguz.

17. artikuluan: "1.– Lege honetan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: (...)

26) Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea, lege honen 7. Artikuluan xedatutakoa gorabehera”.

Toki Erregimena arautzen dauan 7/1985 Oinarri Legeak, honakoa xedatzen dau:

5. artikuluan: “Para el cumplimiento de sus fines y en el ámbito de sus respectivas competencias, las Entidades Locales, de acuerdo con la Constitución y las leyes, tendrán plena capacidad jurídica para adquirir, poseer, reivindicar, permutar, gravar o enajenar toda clase de bienes, celebrar contratos, establecer y explotar obras o servicios públicos, obligarse, interponer recursos establecidos y ejercitar las acciones previstas en las leyes”.

Bigarrena: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen dauan 3/2011 EDLaren 4. artikulua:

*“Negocios y contratos excluidos:*

1. Están excluidos del ámbito de la presente Ley los siguientes negocios y relaciones jurídicas:

(...) d) Los convenios que, con arreglo a las normas específicas que los regulan, celebre la Administración con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su objeto no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2016ko abuztuaren 30ean.

Karmele Muñoa Arrigain  
Behin-behineko Idazkaria